

A8 Autobidearen bidesarien inguruan

PP alderdiak aurkeztutako mozioa

[Código]/[Edición]

HOJA 1.

FERNANDO LECUNBERRI GAISAN jaunak, ERMUKO UDALEKO TALDE POPULARRAREN BOZERAMALEAK, Toki-erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduko 97/3 artikuluan ezarritakoaren babesean, ondorengo mozioa aurkezten du Udalbatzarrak eztabaidatzeko.

ZERGATIA

Bizkaiko Foru Aldundia, 2016ko urtarrilaren 27ko Udalbatzarraren Osoko Bilkuran azaldu zenaren arabera, Bizkaiko bidesarien sistema aztertzen ari da, gidariekin ordaintzen dituzten prezioak egokitzeko eta foru erakundeak kudeatzen dituen ordainpeko azpiegiturak mantentzea (A-8, Artxandako tunelak eta metropoliko hegoalde-saihesbidea) foru-kutxarentzat oso defizitarioa gerta ez dadin.

Lurraldeko errepideen arduradunak, PPren eskariz, bidesarien prezioen inguruan foru-gobernuak duen politika azaldu zuen Bizkaiko Batzar Nagusien osoko bilkuran. Jesús Isasi ahaldunak urte honetarako tarifen %2,5eko gehikuntza gaitzetsi zuen, KPIa gutxiago, %0 eta 0,3 bitartean igo arren, eta foru-kutxa zeharka aberasten dutela kritikatu zuen herritarrei gehiago kobratuz, hobekuntzak merkaturatu barik eta erakundeak berak ezarritako legeak bete gabe. Hori horrela, hartutako erabakiak berraztertu ote daitezkeen planteatu zuen.

Ildo horretatik, jakitera eman zen Errepideen Saila tarifen eredu berri bat aztertzen ari dela joan den irailetik Aldundiak kudeatzen dituen ordainpeko hiru errepideentzat: A8 Autobidea, Supersur delakoa eta Artxandako tunelak.

HORREGATIK GUZTIAGATIK ALDERDI POPULARREKO UDAL TALDEAK HONAKO PROPOSAMENA AURKEZTEN DIO UDALBATZARRARI, EZTABAIDATU ETA ONARTZEKO:

Ermuko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen dio, behin bidesarien azterketa egin ondoren, tartean diren udalei bidal diezaiela, guztien artean ahalik eta gardentasun eta lankidetzarik handiena lortu ahal izateko.